



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko irailaren 17a

102. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, jakitekoa zer arrazoi darabilen Gobernuak Nasuvinsako balantzeari buruzko erabaki ekonomikoak aurrera eramateko, Txentxo Jiménez Hervás jaunak egina (2. or.).
- Galdera, jakitekoa zer egitura fiskaletan oinarritzen duen Nafarroako Gobernuak 2014rako "gastu-sabaia" izenekoaren bere definizioa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (2. or.).
- Galdera, jakitekoa zergatik dagoen zehaztu gabe 2013rako defizit-helburua eta nola ezarri den 2014rako aurrekontuaren gastu-sabaia, Roberto Jiménez Alli jaunak egina (3. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuak onetsitako legeen aurka gobernu zentralak Konstituzio Auzitegian aurkeztutako errekurtsioei dagokienez Nafarroako Gobernuak darabilen politikari buruzkoa, José Miguel Nuin Moreno jaunak egina (4. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakitekoa zer arrazoi darabilen Gobernuak Nasuvinsako balantzeari buruzko erabaki ekonomikoak aurrera eramateko.*TXENTXO JIMÉNEZ HERVÁS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervás jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa zer arrazoi darabilen Gobernuak Nasuvinsako balantzeari buruzko erabaki ekonomikoak aurrera eramateko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko irailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, irailaren 19ko Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuak lehendakari Barcina Angulo ahoz erantzun dezan:

Gobernuak zer arrazoi darabil Nasuvinsako balantzeari buruzko erabaki ekonomikoak aurrera eramateko? Erabaki horiek zer neurritan jar ditzakete arriskuan enpresa horren helburuak eta zer neurritan justifika dezakete aurreikustekoa den enplegu-erregulazioko espediente bat?

Iruñean, 2013ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervás

Galdera, jakitekoa zer egitura fiskaletan oinarritzen duen Nafarroako Gobernuak 2014rako "gastu-sabaia" izenekoaren bere definizioa.*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa zer egitura fiskaletan oinarritzen duen

Nafarroako Gobernuak 2014rako "gastu-sabaia" izenekoaren bere definizioa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko irailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoarekin bat, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, 2013ko irailaren 19rako deitutako Osoko Bilkuraren gai zerrendan sartzeko:

Zer egitura fiskaletan oinarritzen du Nafarroako Gobernuak 2014rako "gastu-sabaia" izenekoaren bere definizioa?

Iruñean, 2013ko irailaren 16an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, jakitekoa zergatik dagoen zehaztu gabe 2013rako defizit-helburua eta nola ezarri den 2014rako aurrekontuaren gastu-sabaia.

ROBERTO JIMÉNEZ ALLI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Roberto Jiménez Alli jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa zergatik dagoen zehaztu gabe 2013rako defizit-helburua eta nola ezarri den 2014rako aurrekontuaren gastu-sabaia.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko irailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko parlamentari Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, heldu den irailaren 19ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaioten:

Zer arrazoi dago 2013rako defizit-helburua zehaztu gabe egon dadin eta, hortaz, nola ezarri ahal izan da 2014rako aurrekontuaren gastu-sabaia?

Iruñean, 2013ko irailaren 16an

Foru parlamentaria: Roberto Jiménez Alli

Galdera, Nafarroako Parlamentuak onetsitako legeen aurka gobernu zentralak Konstituzio Auzitegian aurkeztutako errekurtsioei dagokienez Nafarroako Gobernuak darabilen politikari buruzkoa.

JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Miguel Nuin Moreno jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Parlamentuak onetsitako legeen aurka gobernu zentralak Konstituzio Auzitegian aurkeztutako errekurtsioei dagokienez Nafarroako Gobernuak darabilen politikari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko irailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari José Miguel Nuin Morenok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreak heldu den irailaren 19ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

– Nafarroako Gobernuak zer politika darabil Nafarroako Parlamentuak onetsitako legeen aurka gobernu zentralak Konstituzio Auzitegian aurkeztutako errekurtsioei dagokienez?

Errekurritutako Nafarroako legeak aldezen ditu Nafarroako Gobernuak ala, aitzitik, PPren Gobernuarekin bat egiten du?

Iruñean, 2013ko irailaren 16an

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno